


# Kerity
# Ipuinen etxea

## USTIAPEN PEDAGOGIKOA
## Zineskola 2020

Maialen Idoate - Maia Lamensans
(Hezkunde nazionaleko euskara formatzaileak)

Dokumentu guziak Open office programarekin irekitzen dira. Gehienak PDF formatuan atzematen ahal dira hemen: http://www.ikas.eus/spip.php?article3619
**Sartzeko kodeak > Login:** zineskola – **Pasahitza:** zineskola

ikas
euskal pedagogia zerbitzua
eke icb
EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

# IKASLEENDAKO HELBURUAK

- Zineman ikusi duten « ***Kerity ipuinen etxea*** » filma **ulertu**
- Kultura zinematografikoa **aberastu**
- Ahozko eta idatzizko hizkuntza gaitasunak **landu**

# ULERTU

- **Hiztegia** ezagutu eta gogoan atxiki
- **Erranaldien egiturak** ulertu eta gogoan atxiki
- Gertakarien **kronologia** ulertu eta gogoan atxiki
- **Pertsonaien** arteko **harremanak** eta **egoera mentalak** ulertu
- **Lotura kausalak** ulertu
- Filman **errana ez dena** eta liburuan **idatzia ez dena** ulertu

# IRAKASLEARENDAKO HELBURUAK

## Ulermena landu eta oztopo linguistikoak antizipatu:

- **Hiztegi berri eta berezia** ziblatu eta aitzinetik landu
- **Egitura berri eta bereziak** ziblatu eta aitzinetik landu
- Ikasleak istorioaren **ulermen sakonera** eraman (esplizitutik inplizitura)

# USTIAPENAREN TRAMA

## Filma ikusi aitzin...

### > Proiektuaren azalpena

« *Laster filma baten ikustera joanen gira. Filma euskaraz izanen da. Hortarako eta ulermena errazteko aitzinetik, filmaren pasarte/ezaugarri inportanteak aipatuko/landuko ditugu.* »

# Filma ikusi aitzin...

## > Hipotesiak aitzinatu eta batzuk egiaztatu

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1. saioa:** Nor dira Pertsonaiak? | **2. saioa:** Zer gertatzen da? | **3. saioa:** filma eta liburuaren afixa/azalaren azterketa egin | **4. saioa:** Ipuin tradizionaletako pertsonaia famatuen ezagutza |
| **5. saioa:** Tituluaren azterketa | **6. saioa:** Sinopsiaren irakurketa | **7. saioa:** Erranaldi magikoa aztertu | **8. saioa:** Trailerra |



1. saioa




3. saioa




4. saioa






1. eta 2. saioak

## Trailerra



8. saioa

## SINOPSIA

**Natanaelek** laster beteko ditu zazpi urte, baina oraindik **ez daki irakurtzen**. Izeba Eleonorrek mundu-ko **ipuin-bildumarik** baliotsuena ondoriotasunez uzten dionean, Natanaeli ez zaio batere gustatzen. Hala ere, ipuin guztiek sekretu miresgarri bat gordetzen dute: gaua iristean, Alice, Sorgin Gaiztoa edo Kako-oker Kapitaina bezalako pertsonaiak bere liburuetatik ateratzen dira. Alegiazko pertsonaia horiek arrisku larrian daudela jakinaraziko diote Natanaeli. Betirako desagertzeko zorian daude, baita hainbat belaunalditan zehar haurrek miretsi izan dituzten istorio liluragarriak ere. Natanaelek bere lagun berriak eta bere istorioak salbatu nahi baditu, arrisku handi eta abentura ikaragarriei aurre eman beharko die. Denak salbatuko dituen esaldi magikoa aski goiz irakurtzeko gai izango dea ?

6. saioa

## Erranaldi magikoa




7. saioa

# 1. saioa: Nor dira pertsonaiak?

**Cf: Izebaren gutunaren ulertzeko**
**ODT >** https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_izebaren_gutuna.odp?7296/300e667e500508274ef60947dd05ca3d995816e9
**PDF >** https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_izebaren_gutuna.pdf?7297/1482bc2289983a72df50f5038e38ac73a62cfcde)

Liburuko 5. ilustraziotik abiatu (egon-gelan)

- **Ikasleak taldeka dira eta 2 galderei erantzuten diete:**

  *- Nortzuk dira ikusten diren pertsonaiak?*
  *- Pertsonaia bakoitzak zer egiten du? (neskatxoak gutun bat irakurtzen du eta familia entzuten ari da)*
  *- Non gertatzen da eszena hau?*

- **Elkarretaratzean irakasleak elementuak afixan idazten ditu**

## Egon-gelan gertatzen da ?



## Neska eta mutikoa /Anaia eta arreba?



## Gizon eta emazte / Aita eta ama?



# Ulermenaren eraikuntza: hipotesien taula

| | |
|---|---|
| **Nor dira pertsonaiak?**<br>(Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola) | |
| **Non gertatzen da?**<br>(Leku ezberdinak) | |
| **Noiz gertatzen da?** | |
| **Zer gertatzen da?**<br>(Hasierako egoera) | |
| Ezaugarri nahaslea | |
| Ekintzak/Abenturak | |
| Aterabidea | |
| Bukaera | |

# 2. saioa: Zer gertatzen da?

**Cf: Izebaren gutunaren azterketa:**
https://ikas.eus/IMG/mp3/kerity_izebaren_gutuna.mp3?7284/648d1244bed624f9360f274abfe63ab637e0cdf

**Cf: zer dago atearen atzean audio:**
https://ikas.eus/IMG/mp3/kerity_izebaren_gutuna_emeki.mp3?7285/8d678aa22f79732da8da0eccd2e7b49fe3ef7add

- Talde handian **gutuna entzuten dute** eta irakaslearen galderei erantzuten dute hipotesiak eginez:

  *- Zuen ustez nork du gutuna idatzi?*

- Gutuna handiz afixatzen du irakasleak arbelean eta hipotesiak egiaztatzen dituzte, beste batzuk gehitzen ahal dituzte taulan.

- Taldeka ikasleek gutuna **aztertzen dute.**

  Ikasleen hizkuntza maila desberdinen arabera elementu lagungarriak proposatzen ditu irakasleak

  > Gutuna (filman entzuten den bertsioa)
  > Gutuna eduki arramoldatuarekin + irudiekin (panpina, giltzaren irudiak + hitz berriei doakien irudia ulermena errexteko)

  *- Zer jakiten dugu gutunari esker?*

- Taldeka ikasleek gutuna **aztertzen dute.**

Ikasleen hizkuntza maila desberdinen arabera elementu lagungarriak proposatzen ditu irakasleak

# Gutunaren irakurketaren audioa

https://ikas.eus/IMG/mp3/kerity_izebaren_gutuna.mp3?7284/648d1244bed624f9360f274abfe63ab637e0cdfb

# Gutunaren irakurketa motelduaren audioa

https://ikas.eus/IMG/mp3/kerity_izebaren_gutuna_emeki.mp3?7285/8d678aa22f79732da8da0eccd2e7b49fe3ef7add

# Gutuna erraztuaren irakurketaren audioa

https://ikas.eus/IMG/aac/gutuna_errextua.m4a.aac?7286/89e4958450fef5b56af98563dabb028a23da4c2e

# Ulermenaren eraikuntza: hipotesien taula

| | |
|---|---|
| **Nor dira pertsonaiak?**<br>(Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola) | |
| **Non gertatzen da?**<br>(Leku ezberdinak) | |
| **Noiz gertatzen da?** | |
| **Zer gertatzen da?**<br>(Hasierako egoera) | |
| Ezaugarri nahaslea | |
| Ekintzak/Abenturak | |
| Aterabidea | |
| Bukaera | |

# 3. saioa: Filma afixa/liburuaren azalaren azterketa egin

**Cf: afixa/azala:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_filmaren_afitxa_eta_liburuaren_azala.pdf?7288/834c67c76ac2d0077f9b46dcc18f3e0487c5c5be_

- Talde handian lehenik filmaren afixa aztertu eta izebaren gutunaren lanketarekin loturak egin

  Irakasleak afixa arbelean ezartzen du edo proiektatzen du:
  • Ikasleek ikusten dutenaren deskribapena egiten dute: Natanael erdi erdian eta handiz / inguruan ipuinetako pertsonaiak ttipiz / liburutegi edo antzoki bateko apalak edo estaiak / izenburua / izenak / partaideak…
  • Irakasleak oraingoan liburuaren azala erakusten du.

- Testuaren elementu desberdinen behaketa egin: idatziaren irakurketa, idazkeraren neurri eta kolore desberdinak, testuaren kokapena afixaren espazioan.




*- Zer da dokumentu/irudi/argazki hau?*

*- Nor ote da handiz agertzen den pertsonaia?*

*- Ezaugarri berriak ikusten ahal dituzue ?*

**Afixa**




**?**




*Berdinak ote dira bi dokumentuak?*

*Zer ote da?*

- **Irudiaren deskribapena:** tokia, koloreak, pertsonaiak, planoak, argia…

-**Ikasleen hipotesiak bildu:** Zer gertatuko da filma honetan? (Taulan idatzi)

# 4. saioa: Pertsonaia famatuen ezagutza

**Cf: aipatuak diren pertsonaiak:**
https://ikas.eus/IMG/odp/filman_aipatuak_diren_pertsonaiak.odp?7289/9f6f78e5de4bdbce2657332c1afd18322926c6ad

- Talde handian

**Eguneko egoera erritualizatu batean** irakasleak ipuin tradizional bat irakurtzen /kon-tatzen die ikasleei.

**Cf: Euskaratuak diren ipuin tradizionalen bibliografia:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/bibliografia_ipuin_klasikoak.pdf?7303/da8acc6dcd202940842d56d62df460cefd5dd855

**Helburuak:**
- Ipuin tradizionalaren egitura finkatu
- Ahozkoan eta idatzian: Pertsonaia nagusiaren nortasun agiria osatu

# Ipuin tradizionalaren egitura



# Nortasun agiria



Nor da? ....................................................

Non bizi da? ..............................................

Zer egiten du? ...........................................

Zein dira bere berezitasunak?...................................

.......................................................................................

# 5. saioa: Tituluaren azterketa




- Talde handian eta ahozkoan (taula osatuz)

*- Zer da **Kerity**? Nola badakizue?*

*- **Zer** argibide ematen digu izenburu honek?*

*- **Non** gertatzen da?*

*- **Noiz** gertatzen da?*

*- **Ipuin** hitza eta pertsonaia famatuen arteko lotura egin*

*- **liburu eta irakurketa** gaiak aipatzen ahalko dira.*

# Ulermenaren eraikuntza: hipotesien taula

| | |
|---|---|
| **Nor dira pertsonaiak?**<br>(Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola) | |
| **Non gertatzen da?**<br>(Leku ezberdinak) | |
| **Noiz gertatzen da?** | |
| **Zer gertatzen da?**<br>(Hasierako egoera) | |
| Ezaugarri nahaslea | |
| Ekintzak/Abenturak | |
| Aterabidea | |
| Bukaera | |

# 6. saioa: Filmaren sinopsia

**Cf: sinopsia:** http://ikas.eus/spip.php?article3619

- Talde handian edo talde txikitan: Irakasleak sinopsia eta filmaren afixaren arteko loturak eginarazten dizkie ikasleei eta taula osatzen segitzen dute. Ulermena errexteko irudiak erabil daitezke

*- Zer Zer dakigu gehiago Natanaeli buruz?*

*- Zein ote da ezaugarri nahaslea?*

*- Zein da Natanaelen desafioa?*

*- Zein izanen da arazoaren aterabidea?*

# Filmaren sinopsia

***Natanaelek** laster beteko ditu zazpi urte, baina oraindik ez daki irakurtzen. Izeba Eleonorrek munduko **ipuin-bildumarik** baliotsuena ondoriotasunez uzten dionean, Natanaeli ez zaio batere gustatzen. Hala ere, ipuin guztiek sekretu miresgarri bat gordetzen dute: gaua iristean, **Alice, Sorgin Gaiztoa edo Kako-oker Kapitaina** bezalako pertsonaiak bere liburuetatik ateratzen dira. **Alegiazko pertsonaia horiek** arrisku larrian daudela jakinaraziko diote Natanaeli. **Betira-ko desagertzeko zorian daude**, baita hainbat belaunalditan zehar haurrek miretsi izan dituzten istorio liluragarriak ere. Natanaelek bere lagun berriak eta bere istorioak **salbatu nahi baditu**, arrisku handi eta abentura ikaragarriei aurre eman beharko die. Denak salbatuko dituen **esaldi magikoa aski goiz irakurtzeko gai izango dea ?***

# Filmaren sinopsia laburtua

***Natanaelek*** *laster zazpi urte izanen ditu baina ez daki irakurtzen.*

*Izeba Eleonorrek munduko ipuin bildumarik ederrena uzten diolarik, Natanael ez da batere kontent.*

*Hala ere,* ***ipuinek sekretu handi bat gordetzen dute*** *: gaua iristen delarik,* ***Alice, Sorgin Gaiztoa eta Kako-oker Kapitaina*** *beren liburuetatik ateratzen dira.*

*Ipuinetako pertsonaiek Natanaeli erranen diote arrisku handian direla.* ***Betirako desagertzeko arriskuan dira.***

*Natanaelek* ***bere lagun berriak eta istoriak salbatu nahi baditu****, arrisku handi eta* ***abentura beldurgarriak*** *bizi beharko ditu.*

*Denak salbatuko dituen* ***esaldi magikoa*** *tenorez* ***irakurtzea lortuko ote du****?*

## Pertsonaiak beren liburuetatik ateratzen dira



## Natanaelek ez daki irakurtzen





# Ulermenaren eraikuntza: hipotesien taula

| | |
|---|---|
| **Nor dira pertsonaiak?** (Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola) | |
| **Non gertatzen da?** (Leku ezberdinak) | |
| **Noiz gertatzen da?** | |
| **Zer gertatzen da?** (Hasierako egoera) | |
| Ezaugarri nahaslea | |
| Ekintzak/Abenturak | |
| Aterabidea | |
| Bukaera | |

# 7. saioa: Erranaldi magikoa

**Cf: erranaldia:** https://ikas.eus/IMG/pdf/erranaldiak_eus_fr.pdf?7295/7090c2cde06e3aeeefccdd174c7c9ed25fed257

- Talde txikitan edo binaka, 2 proposamen:

**1** PROPOSAMENA




**2** PROPOSAMENA



## 1. proposamena: erranaldia euskaraz aztertu:

*- Ulertzen dituzuen hitzak azpimarratu eta erran-nahia esplikatu.*
*- Ulertzen ez dituzuen hitzak inguratu eta hiztegian xerkatu*
*- Zuen ustez zer erran nahi du erranaldi horrek?*

## 2. proposamena: filmaren iruditik abiatu (erranaldia frantsesez):

*- Zer ulertzen duzue erranaldi horretaz?*
*- Nola idatziko zenukete erranaldi hau euskaraz ?*

Ikasleek itzulpenak proposatzen ahal dituzte eta irakaslearekin egokia finkatzen dute. Bi hizkuntzetan diren erranaldien arteko konparaketa lana eraman dezakete erran lantzeko.

# **8. saioa:** Filmaren trailerra

www.youtu.be/cOK7mxO4JWw




Ikasleen hipotesiak baieztatzeko, sakontzeko, pertsonaien izenak, rolak ulertzeko, harremanak zein diren ikusteko.

Pertsonaia nagusiaren desafioaren ezagutzeko.

# Teaser-aren idazkia

**Katu botaduna:** *Liburutegi hori oso berezia da mutiltxo.*

**Natanael:** *Aladdin, Mowgli, Baloo, Merlin Eztia, Arturo Erregea, Pinotxo, Lantzelot, Perceval, Gulliver, Mari Errauskin, Nils Holgersson, Xerezade, Ali Baba, Hansel eta Gretel!*

**Alice:** *Primeran!*

**Natanael:** *Alice!*

**Natanael:** *Nondik zatozte?*

**Pirata:** *Gure liburuetatik, nondik bestela?*

**Mari Errauskin:** *Berari esker salbatuko gara eta mundu osoko umeek amesten jarraituko dute!*

**Denek:** *Isildu zaitezte! Esaldi magikoa irakurriko du!*

**Katu botaduna:** *Esaldi magikoa irakurtzeko aukera bakarra baino ez duzu!*

**Natanael:** *Asm…*

**Sorgin Gaiztoa:** *Esan dizuet, ezta? Irakurtzen ere ez daki!*

*Zirritizar-zarakazi! A, a, a!*

**Natanael:** *Baina txikiegia naiz zuek salbatzeko!*

**Peter Pan:** *Eguerdirako ez baduzu irakurri, denok desagertuko gara! Eta istorio guztiak ere!*

**Alice:** *Eta umeei benetako istorioak baino ez zaizkie irakurriko!*

**Untxi zuria:** *Ez da ere segundo bat ere atzeratu*

**Natanael:** *Zuen istorioak maite ditut. Bizi iraungo duzuela ziurtatuko dut.*

**Pirata:** *Nola lortuko duzu?*

**Alice:** *Badakit irakurtzeko gai izango zarela. Animo! Honeraino eraman gaituzu! Beldurra gainditu! Alfabetoa ezagutzen duzu.*

**Izeba Eleonora :** *Baina ez ahaztu inork ezin duela ametsik gabe bizi.*

# Ulermenaren eraikuntza: hipotesien taula

| | |
|---|---|
| **Nor dira pertsonaiak?** (Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola) | |
| **Non gertatzen da?** (Leku ezberdinak) | |
| **Noiz gertatzen da?** | |
| **Zer gertatzen da?** (Hasierako egoera) | |
| Ezaugarri nahaslea | |
| Ekintzak/Abenturak | |
| Aterabidea | |
| Bukaera | |

# Filma ikusi eta gero:

## 1. Saioa: Ikasleen iritziak bildu ahozkoan eta afixa batean idatzi

| Maitatu duzu? Zergatik? | |
|---|---|
| **Maitatu dut .... lako. / …….baita.** | **Ez dut maitatu ……….lako/….baita.** |
| | |

# Ulermena sakondu: hipotesiak egiaztatuz

| | Hipotesiak | Egiaztapenak<br>Egia da. / Ez da egia. |
|---|---|---|
| **Nor dira pertsonaiak?**<br>(Haien arteko harremanak eta bakoitzaren rola) | | |
| **Non gertatzen da?**<br>(Leku ezberdinak) | | |
| **Noiz gertatzen da?** | | |
| **Zer gertatzen da?**<br>(Hasierako egoera) | | |
| Ezaugarri nahaslea | | |
| Ekintzak/Abenturak | | |
| Aterabidea | | |
| Bukaera | | |

# Filma ikusi eta gero:

## 2. Saioa: Filma mota: Animazio filma teknika eta estiloa

- Istorioa eta gidoia
- Arte zuzendaria
- Rebecca Dautremer
    - Bere estiloa
    - Etxea eta dekoratuak
    - Pertsonaiak (model sheet)

**Cf: Kerity - Teknika eta estiloa**

**PPTX** > https://ikas.eus/IMG/pptx/kerity.pptx?7307/81ecd8bf6b2834a7c482b3cb7e9c85f032ceeb25

**PDF** > https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity.pdf?7308/014751e21cd2cf9711ee044d3e715eadef5ff90d

**Txostenaren egilea: Maitane Hernandez, EKE**

# Filma ikusi eta gero:

## 3. Saioa: Ulermena sakondu: istorioa berriz ere eraikiz

Helburua: Kerity ipuinaren egitura landu ulermena sakontzeko

- Ipuinaren parte bakoitza identifikatu
- Parte bakoitzeko ezaugarriak atzeman testua eta irudiak ikertuz
- Parte desberdinen artean loturak egin

Baldintzak/modalitateak: Ikasleek taldeka lan egiten dute.

- Ikasleen mailaren arabera lan euskarriak egokitzen dira (testua idatzi den bezala erabiliz/testu arramoldatua erabiliz/testu laburtuak erabiliz/ irudi adierazgarriak erabiliz)

Garapena:

- 1. partea: Hasierako egoera (Nor? Non? Zer? Noiz?) + ezaugarri nahasleak
- 2. partea: Desafioa / Ekintzak / abenturak
- 3. partea: Aterabidea / Bukaera

# Ipuin tradizionalaren egitura

**IZENBURUA:**

**1. Hasierako egoera**
- Nor?
- Non?
- Noiz?
- Zer?

**2. Ezugarri nahaslea**
- Zer da arazoa / desafioa ?
- Nor da mehatxatua?

**3. Ekintzak/Abenturak**
- Zein dira ekintzak?

**4. Aterabidea**
- Zein dira ekintzen ondorioak?

**5. Bukaera**
- Zein dira lorpenak ?
- Morala?

# 1. partea: Ipuin egitura landu

## IZENBURUA: **Kerity ipuinen etxea**

### **Hasierako egoera:** 1. orri > 12. orri

**Nor?**

- Natanael
- Eleonore
- Angelika
- Aita
- Ama
- Ipuinetako pertsonaiak
- Piktu jauna

**Non?**

- Kerity-n, Bretaina kostaldeko herri batean.
- Eleonore izebaren etxean : egongelan, liburutegian

**Noiz?**

Udako oporraldi garaian

**Zer?**

- Izeba Eleonore zendu da.
- Liburutegia = Natanaelen ondoriotasuna
- Errusiar panpina = Angelikaren ondoriotasuna
- Ekaitz-haize bortitzak etxea larri zauritu du.
- Piktu jaunari liburuak saldu dizkiote.
- Ipuinak eta pertsonaiak eguerdia baino lehen desagertuko dira Natanaelek erranaldi magiko irakurtzen ez badu.

### **Ezaugarri nahaslea:** 13. orri > 15. orri

- Natanaelek ez du lortzen erranaldia irakurtzen.
- Sorgin Gaiztoak Natanael ñimiño bihurtu du.
- Piktu jaunak liburutegiko liburu guziak eraman ditu dendara.
- Sorgin Gaiztoa Eleonoren etxeko liburutegian gelditu da.

# 2. partea: Ipuin tradizionalaren egitura

**Ezaugarri nahaslea:** 13. orri > 15. orri

- Natanaelek ez du lortzen erranaldia irakurtzen.
- Sorgin Gaiztoak Natanael ñimiño bihurtu du.
- Piktu jaunak liburutegiko liburu guziak eraman ditu dendara.
- Sorgin Gaiztoa Eleonoren etxeko liburutegian gelditu da.

**Ekintza/Abenturak:** 16. orri > 24. orri

### Zer da arazoa / desafioa ?

Natanaelek erranaldi magikoa irakurri behar du eguerdia aitzin bestela ipuinak eta ipuinen pertsonaiak desagertuko dira betirako.

### Nor da mehatxatua?

- Pikturen dendatik etxeko liburutegira joan behar da Natanael.
- Alice, Untxi zuria, Ogroa eta Natanaelek hondartza zeharkatu behar dute etxeko liburutegira iristeko.
- Olatu erraldoi, karramarro, kaio eta oin handi bati aurre egin behar du talde ñimiñoak.
- Angelikak Hadriano auzotar eta lagunari liburutegiaren egoera azaltzen dio.
- Pertsonaiak ipuinetan nahasten dira eta ondorioz Kermanek jaunak ez ditu erosi nahi.
- Eguerdia hurbiltzen ari da, liburuetako testu eta irudiak ezabatzen dira. Ondorioz Aulnoy andereak ez ditu erosi nahi.

# 3. partea: Ipuin tradizionalaren egitura

**Aterabidea:** 24. orri > 29. orri

Zein dira ekintzen ondorioak?

- Angelikak lagun taldea laguntzen du eta etxeko liburutegira eramaten du.
- Alicek konfiantza adierazten dio Natanaeli eta erranaldi magikoa irakurtzen lortzen du.
- Natanaelek badaki irakurtzen! Aita bere semeaz biziki harro da.
- Aitak pertsonaia ñimiñoak bere poltsikoan hartu eta dendara eraman ditu liburuen berreskuratzeko.
- Pertsonaia guziek kolorea hartu eta beren lekuetara itzuli dira.
- Sorgin gaiztoak berriz ere Natanael bere neurrira ekarri du.
- Hadriano auzotar leialak liburuak berriz ere etxera eramaten laguntzen ditu.
- Errusiar panpinaren sekretua jakiten du Angelikak : Eleonoren bitxiak badira barnean. Aberastasun horrekin etxea konpontzen ahalko dute.

**Bukaera:** 30. orri

## Lorpenak

- Angelikak Natanaelek irakurtzen badakiela onartzen du.
- Anaia arreben artean konplizitatea sortzen da.
- Eleonore izebaren xedea betetzen da : Natanaelek irakurtzen badaki.

## Interpretazioak

- Irakurtzea ez da soilik deszifratzea jakitea, ipuinetako pertsonaiak eta istorioak ulertzea baizik.
- Irakurtzea, literatura gozatzea da.
- Konfiantza adierazteak ikasprozesua laguntzen du.

# 1 **Hasierako egoera:** 1. orri > 12. orri

## Lehen euskarriak

### Cf: Istorioaren lanketa

**ODT >** https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.odp?7293/632bd723fd3527a32848c471c35e5ea2c1868b60

**PDF >** https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.pdf?7294/365a2ba0829358b53540ef3cb04f19e7736815b

### Cf: 1. partea + pertsonaien errepresentazioak

**ODT >** https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_pertsonaien_errepresentazioak.odp?7310/b65595a7517a03ddd80294f78948086ba61caab

**PDF >** https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_pertsonaien_errepresentazioak.pdf?7311/abeba0ffe3751c4b2b3903560a8409eab88aed9b

- Testuak idatziak diren bezala
- Testu arramoldatuak
- Testu laburtuak
- Irudi adierazgarriak

# 2 Ezaugarri nahasleak: 13. orri > 15. orri

## Lan euskarriak

**Cf: Istorioaren lanketa** (2. partea)

**ODT >** https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.odp?7293/632bd723fd3527a32848c471c35e5ea2c1868b60

**PDF >** https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.pdf?7294/365a2ba0829358b53540efb3cb04f19e7736815b

- Testuak idatziak diren bezala
- Testu arramoldatuak
- Testu laburtuak
- Irudi adierazgarriak

# 3 **Desafioa/Ekintzak/Abenturak:** 16. orri > 24. orri

## Lan euskarriak

**Cf: Istorioaren lanketa** (3. partea)

**ODT >** https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.odp?7293/632bd723fd3527a32848c471c35e5ea2c1868b60

**PDF >** https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.pdf?7294/365a2ba0829358b53540efb3cb04f19e7736815b

**Cf: irudi eta testu adierazgarriak** (3/4/5. parteak)

**ODT >** https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_irudi_eta_testu_adierazgarriak_3_4_5_parteak.odp?7312/332a37653939a70a655ef123cf66fb63cb30f943

**PDF >** https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_irudi_eta_testu_adierazgarriak_3_4_5_parteak.pdf?7313/c9cdc5653830aa1c07f5d321abc9c1c6deee6b0a

- Albuma numerizatua: Testuak idatziak diren bezala (dokumentu aldakorra da)
- Liburutik ateratutako irudi adierazgarriak
- Filmatik hautatutako irudi adierazgarriak

## 4 **Aterabidea:** 25. orri > 29. orri

## 5 **Bukaera:** 30. orri

# Lan euskarriak

**Cf: irudi eta testu adierazgarriak** (3/4/5. parteak)

**ODT >** https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_irudi_eta_testu_adierazgarriak_3_4_5_parteak.odp?7312/332a37653939a70a655ef123cf66fb63cb30f943

**PDF >** https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_irudi_eta_testu_adierazgarriak_3_4_5_parteak.pdf?7313/c9cdc5653830aa1c07f5d321abc9c1c6deee6b0a

- Albuma numerizatua: Testuak idatziak diren bezala (dokumentu aldakorra da)
- Liburutik ateratutako irudi adierazgarriak
- Filmatik hautatutako irudi adierazgarriak

# Luzapenak

## 2 GAI EZBERDIN

### Ipuinak > Ipuin klasikoak > EHko ipuinak > Bretainiako ipuinak

**Euskaratuak diren ipuin tradizionalen bibliografia:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/bibliografia_ipuin_klasikoak.pdf?

**Euskal-herriko ipuinen bibliografia:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/euskal_ipuin_batzuk.pdf?7305/78645dff6217e606f6beed78a34ce6423ff5717e

**Bretainiako ipuinen bibliografia:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/bretainierazko_ipuinak.pdf?7304/2d7f62f8c8714011c8a57ae39237caaf5f051ddc

### Liburutegia > eskolako liburutegia > mediateka > IKASeko mediateka > liburutegi famatuak munduan > Abadia





**Nola kokatu liburutegi batean, nola bilduak dira liburuak, nola atzeman liburu bat?**

**Kerity - luzapenak: ipuinak, liburutegiak >**
https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_luzapenak.pdf?7309/9abd3dc59a94c550561c2793c3cea34ec81922f8

# Euskarri guziak 1/3

## Oinarrizko euskarriak

• **Kerity ipuinen etxea liburua euskaraz:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_liburua_numerizatua.pdf?7283/201fc23a20fb4431f7facdfc51f4d824301ec679

• **Kerity ipuinen etxea liburua euskaraz** (molde aldakorran):
https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_liburua_numerizatua.odp?7282/7c963f7a2a8dd0e444bad0843c5ad0e6bfcb9bc2

• **Filmaren transkripzioa** (hastapena):

ODT > https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_filmaren_transkripzioa_-_hastapena.odp?7291/27a830582e60bc1393db4c7e3937db60671edd8b
PDF >https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_filmaren_transkripzioa_-_hastapena.pdf?7292/9176a00e4e284085287c34b6589fb7c50267e91c

• **Pertsonaiak – filman aipatuak:**
https://ikas.eus/IMG/odp/filman_aipatuak_diren_pertsonaiak.odp?7289/9f6f78e5de4bdbce2657332c1afd18322926c6ad

• **Erranaldi magikoa:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/erranaldiak_eus_fr.pdf?7295/7090c2cde06e3aeeefccdd174c7c9ed25fbed257

• **Filmaren afixa eta liburuaren azala:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_filmaren_afitxa_eta_liburuaren_azala.pdf?7288/834c67c76ac2d0077f9b46dcc18f3e0487c5c5be

• **Irudi eta testu adierazgarriak 3., 4. eta 5. parteak.**

ODT > https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_irudi_eta_testu_adierazgarriak_3_4_5_parteak.odp?7312/332a37653939a70a655ef123cf66fb63cb30f943
PDF > https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_irudi_eta_testu_adierazgarriak_3_4_5_parteak.pdf?7313/c9cdc5653830aa1c07f5d321abc9c1c6deee6b0a

# Euskarri guziak 2/3

## Dokumentu pedagogikoak

- **Izebaren gutunaren azterketa**

ODT > https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_izebaren_gutuna.odp?7296/300e667e500508274ef60947dd05ca3d995816e9
PDF > https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_izebaren_gutuna.pdf?7297/1482bc2289983a72df50f5038e38ac73a62cfcde

- **Pertsonaien errepresentazioak**

ODT > https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_pertsonaien_errepresentazioak.odp?7310/b65595a7517a03ddd80294fb78948086ba61caab
PDF > https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_pertsonaien_errepresentazioak.pdf?7311/abeba0ffe3751c4b2b3903560a8409eab88aed9b

- **Istorioaren lanketa**

ODT > https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.odp?7293/632bd723fd3527a32848c471c35e5ea2c1868b60
PDF > https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_liburuaren_lanketa_-_hastapena.pdf?7294/365a2ba0829358b53540efb3cb04f19e7736815b

## Audioak

- **Izebaren gutuna** > https://ikas.eus/IMG/mp3/kerity_izebaren_gutuna.mp3?7284/648d1244bed624f9360f274abfe63ab637e0cdfb
- **Izebaren gutuna** (emeki) > https://ikas.eus/IMG/mp3/kerity_izebaren_gutuna_emeki.mp3?7285/8d678aa22f79732da8da0eccd2e7b49fe3ef7add
- **Izebaren gutuna** (errextua) > https://ikas.eus/IMG/aac/gutuna_errextua.m4a.aac?7286/89e4958450fef5b56af98563dabb028a23da4c2e
- **Zer dago atearen atzean** > https://ikas.eus/IMG/mp3/zer_dago_ate_honen_atzean.mp3?7287/ce19d087e80a9d0c3025d0ce3e679395a96a0e0f

# Euskarri guziak 3/3

## Luzapenak

### IPUINAK

- **Kerity - luzapenak: ipuinak, liburutegiak**

ODT > https://ikas.eus/IMG/odp/kerity_ipuinak_eta_liburutegiak.odp?7314/2b681e27dcb948a95b238491454acd72e10cb1eb
PDF > https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity_luzapenak.pdf?7309/9abd3dc59a94c550561c2793c3cea34ec81922f8

- **Euskaratuak diren ipuin tradizionalen bibliografia:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/bibliografia_ipuin_klasikoak.pdf?7303/da8acc6dcd202940842d56d62df460cefd5dd855

- **Euskal-herriko ipuinen bibliografia:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/euskal_ipuin_batzuk.pdf?7305/78645dff6217e606f6beed78a34ce6423ff5717e

- **Britainiako ipuinen bibliografia:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/bretainierazko_ipuinak.pdf?7304/2d7f62f8c8714011c8a57ae39237caaf5f051ddc

### TEKNIKA ETA ESTILOA

- **Kerity: teknika eta estiloa**

PPTX > https://ikas.eus/IMG/pptx/kerity.pptx?7307/81ecd8bf6b2834a7c482b3cb7e9c85f032ceeb25
PDF > https://ikas.eus/IMG/pdf/kerity.pdf?7308/014751e21cd2cf9711ee044d3e715eadef5ff90d

- **Entretiens et secrets de tournage:**
https://ikas.eus/IMG/pdf/entretiens_et_secret_de_tournages.pdf?7306/8d3af10a4d9f540e3a62007481f2c1159a14d2b7

- **C'est pas sorcier - Il était toon fois:** https://www.youtube.com/watch?v=Ag_16lqq8T4